



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/10/19

## **Batzar Nagusiek futbol talde profesionalen tratamendu fiskala aldatu dabe**

Gaur Gernikan egin dan Bizkaiko Batzar Nagusien osokoak, batzarretako talde guztien aho bateko erabagiz, kirol talde profesionalen tratamendu fiskala aldatzen dauen Foru Arau proiektua onartu dau. Aldundiak aurkeztu dauen testuak –artikulu bakarrak– Soziedadeen Zergea aldatuko dau, lehen mailako futbol taldeek eukiezan kenkariei jagokenez, irabazi asmo bako erakunde moduan hartzen ziralako. Aldaketaren ostean, soziedade anonimoek ordaintzen daben zerga tasa bera ordaindu beharko dabe. Araua urte honetako garagarrietik aurrera aplikauko da, atzeraeraginez.

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak azaldu dauenez, aldaketa horren errazoaia, Foru Ogasuna Europako Batzordeak 2016ko garagarriaren 4an hartu eban Erabagira egokitu behar dala da, “estaduaren laguntza” moduan ulertzen dalako Espainiako Estaduko futbol taldeek lehiatzeko orduan abantailea izatea, “modu partzialean salbuetsita” egozan erakundeak ziralako, soziedade anonimoei jagoken tratamenduagaz alderatuta, soziedade anonimoek, bost puntu altuagoa dan Soziedadeen gaineko Zergaren araubide orokorra bete behar dabelako.

“Europar Batzordearen errazoinamenduakaz ados egon edo ez, egia da Europar Batasunaren Funtzionamendurako Tratadua kontuan izanda, bertako kide diran Estaduetako agintaritza eskudunek atoa eta modu eragingarrian gauzatu behar dituela estaduen laguntzen kontrolaren arloan Europar Batasunak hartzen dituan Erabagiak”, esan dau Iruarrizagak. Hori dala eta, Bizkaiak arauaren aldaketa hori egin beharko dau, Estaduko gobernuak daborduko egin dauen moduan.

Batzarretako talde guztiak arauaren aldaketearen alde agertu dira, beste ezer baino lehen, “derrigorrez bete behar dan” aldaketea dalako. Alemaniako talde batek egin dauen salaketatik sortu dan Europar Batzordearen erabagia “harmonizazino fiskal handiagoa” lortzeko beste pausu bat da, PPrent eretxiz. Javier Ruiz talde horretako bozeroalearen berbetan, neurriak “zuzentasun fiskala eta soziala” erakusten dau, “danok bardinak izan behar garalako legearen aurrean”. Taldeek “merkataritza arloko jardurea egiten dabe, milioi askoko aurrekontuak eta, sarri askotan, irabazi garrantzitsuak ditue”, esan dau, Athletic taldea aitatzuz.

Antzeko eretxia erakutsi dabe Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek. Asun Merinero talde moreko batzordekideak esan dauenez, orain arte futbol taldeek “pribilegiozko” tratamendu fiskala eben, eta zerga tasa baxuagoaren “onurak lortu ditue”. Hori dala eta, ordaindu ez dabena “itzuli” beharko leukie. Aldundia kritikau dau, “zuzenketea agindu baten ondorioz” heldu dalako, “eta ez Aldundiaren bearen erabagiz”.

Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekideak, bere aldetik, “errazoi osoz” erakunde horreek ezin dirala irabazi asmorik bako erakunde moduan ulertu esan dau. “Irabazi asmorik bako ze erakundek dauka 19,6 milioi euroko irabazia, Athletic taldeak moduan?”, galdetu dau. “Egia da irabaziak ez dituela bazkideen artean banatzen, baina hori ez da nahikoa tratu mesedegarria izateko”, adierazo dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Alexia Castelo sozialistak, “batzuek”, orain arte ezelango arau aldaketarik planteau ez daben arren orain “gurdira igoten dirala” kritikau ostean, Foru Ogasunak, Athletic taldeak kopururen bat “itzuli” behar dauen ala ez erabagi behar dauela orain, esan dau.

EAJ-PNVren eretxiz, arautegiaren aldaketearen helburua “segurtasun juridikoa bermatzea” eta kirol erakundeen arteko “tratu mesedegarria” baztertzea da, baina Ainara Aretxabaleta batzordekide jeltzaleak argitu dauenez, “Aldundiak, orain arte, lege esparrua aplikau dau”.

#### BATZAR NAGUSIEN AGINDUEN BETETE MAILEA

Saio berean, 2015eko irailaren 1etik 2016ko irailaren 1era bitartean Batzar Nagusietan onetsi diran arauz besteko proposamenen artean Foru Aldundiak bete dituanen kontrolari jagokon txostena aurkeztu dau Aldundiak, Bizkaiko Batzarren arautegiaren 179. artikulua beteteko.

Ibone Bengoetxea Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak azaldu dauenez, txostenak, osoko saio batean aurkeztzen dan lehenengoak, azkenengo urtean Bizkaiko Batzarretan onetsi diran arauz besteko “79” proposamenen betete mailea jasoten dau. Horreetatik “51” Foru Aldundiari jagokoz zuzenean, eta “28” beste erakunde batzuei. Azken horreen artean, Bengoetxeak azpimarratu dauenez, “lautan” Aldundiak ekimenaren “izpiritua” bereganatu dau.

Bengoetxeak azpimarratu egin dau, baita be, Aldundiak proposamenen “%100a beteteko beharrezkoak diran neurriak jarri dituala”, baina Bizkaiko Foru Aldundiari jagokozan berrogeita hamaiken artetik “28” “gauzatze bidean” dagozala une honetan, osorik beteteko epea “laburra” izan dalako. Foru Aldundiak bete dau daborduko arauz besteko “23” proposamen gauzatze agindua.

Diputatu andreak Batzarrek onetsi dituen 51 proposamen horreek aitatu ditu: Herri Administrazio, Ogasun eta Finantza eta Gizarte Ekintza sailek bina izan ebezan. Bost Enplegu sailari jagokoz, sei Iraunkortasun eta Ingurune Naturalari, eta beste zazpi Ekonomiaren Garapen Sailari. Proposamen gehien bete behar izan dituen sailak Garraioak eta Euskera eta Kultura dira, arauz besteko hamabi eta hamabost proposamenakaz, hurrenez hurren.

#### 2014KO KONTU OROKORRA ETA ALKARRIZKETARAKO MAHAIAREN DEIALDIA ONETSI DIRA

Osokoak, 2014. urteari jagokon Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontu Orokorra onetsi dau. José María Iruarizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak egin dauen atal ekonomiko-finantzazkoen laburpenak Batzarren on-erretxia jaso dau, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen eta Talde Mistoaren aldeko botoei esker. PPK eta Podemos Bizkaiak kontrako botoa emon dabe, eta EH Bildu abstenidu egin da.

Gainera, Bizkaiko Batzarrek aho batez onetsi dabe Bizkaiko Alkarrizketa Zibilerako Mahaiaren deialdia eskatzea, EAJ-PNVk, PSE-EEk, EH Bilduk, Podemos Bizkaiak eta Talde Mistoak aurretik lortutako akordioaren ostean.

Testuan jasoten danez, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deusie Gizarte Ekintzako Foru Sailari, Alkarrizketa Zibilerako Mahaiaren lehenengo bilerea “ahalik eta arinen” deitzeo,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

“mahaiak berak, bere lehentasunak kontuan izanda, eta bere jarduketa eremuaren barruan, aurrera eroatea erabagiten dituan gaiak lantzeko, aurreko legealdietako esperientzia kontuan izanda”.

Batzar Nagusiek ekimen horren baliozkotasuna berresten dabe, eta erakunde horri, “gizarte arloko politikak eta foru sektore publikoko eta gizarteko esku-hartze arloko gizarteko hirugarren sektoreko beste ekimen batzuk bideratuko, bultzatuko eta ebaluauko dituen ekimenak gauzatzea” eskatzen deusie.

**EZ DIRA ONARTU UDAL FINANTZIAZINOAREN ETA AHT BILBON SARTZEAREN GAINEKO MOZINOAK**

Saioaren azken partean, Batzarretako taldeek beste mozino bi eztabaidau ditue, baina bata be ez da onetsi. Podemos Bizkaiak Bizkaiko udalerrri batzuen (Etxebarri, Karrantzako harana, Zaratamo, Orozko, Gorniz, Bermeo eta Zaldibar) eskaria jaso dau, udal finantziazino “zuzenagoa” ezarri daiten. PP eta Talde Mistoa alde agertu dira, EH Bildu abstenidu egin da eta EAJ-PNVk eta PSE-EEK kontra bozkatu dabe.

PP taldeak, bere aldetik, Aldundia “laneko esparruetan” sartzea gura eban, Bilboko Udalagaz, Eusko Jaurlaritzagaz eta Sustapen Ministerioagaz batera, AHT Bilbon sartzeko lanetan laguntzeko, “ideen eta ekarpen ekonomikoaren” bitartez. Gobernu eusten daben talde biak – EAJ-PNV eta PSE-EE– popularren ekimenaren kontra agertu dira, lan horren finantziazinoa Gobernu Zentralari jagokola uste dabelako.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
19/10/2016

## **Las Juntas Generales modifican el tratamiento fiscal de los clubes de fútbol profesionales**

El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia celebrado hoy en Gernika ha aprobado, por unanimidad, el proyecto de Norma Foral que modifica el tratamiento fiscal de los clubes deportivos profesionales. El texto presentado por la Diputación –un artículo único- cambia el Impuesto de Sociedades en lo que se refiere a las deducciones que tenían los clubes de fútbol de primera división por ser considerados entidades sin ánimo de lucro. Tras la modificación, los clubes pasarán a tener el mismo tipo de gravamen que las sociedades anónimas deportivas. La norma será de aplicación con carácter retroactivo desde julio de 2016.

Según ha explicado el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, el cambio obedece a que la Hacienda foral debe adaptarse a la Decisión de la Comisión Europea, de 4 de julio de 2016, que recogía como “ayuda estatal” el hecho de que los clubes de fútbol en el Estado español estaban en ventaja competitiva, al tener la consideración de entidades “parcialmente exentas”, con respecto al tratamiento que corresponde a las sociedades anónimas, las cuales están sometidas al régimen general del Impuesto sobre Sociedades, cinco puntos mayor.

“Con independencia de que se compartan o no los razonamientos de la Comisión Europea, es cierto que el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea exige a las autoridades competentes de los Estados miembros la ejecución inmediata y efectiva de las Decisiones de la Comisión Europea en el ámbito del control de las ayudas estatales”, ha explicado Iruarrizaga, de ahí que Bizkaia realice esta modificación normativa como ya se ha hecho en el Estado español.

Todos los grupos junteros han apoyado la modificación normativa porque, en primer lugar, supone un cambio de “obligado cumplimiento”. La decisión de la CE, que nace de la denuncia de un club alemán, supone para el PP un paso más en aras de conseguir una “mayor armonización fiscal”. Para su portavoz, Javier Ruiz, la medida es de “justicia fiscal y social”, ya que “todos debemos ser iguales ante la ley”. Los clubs “realizan una actividad mercantil, tienen presupuestos millonarios y, en muchos casos, superávits importantes”, en referencia al Athletic.

En el mismo sentido, se han postulado los grupos Podemos Bizkaia y EH Bildu. La apoderada del grupo morado Asun Merinero ha señalado que los clubes de fútbol tenían hasta ahora un tratamiento fiscal “privilegiado” y se “han beneficiado” de un gravamen inferior por lo que deberían “devolver” aquello que no han pagado. Ha criticado a la Diputación por que la “rectificación” llega “por obligación y no por convicción”.

Por su parte, la apoderada de EH Bildu Arantza Urkaregi ha explicado que “con toda la razón”, estas entidades no pueden ser consideradas entidades sin ánimo de lucro. “¿Qué entidades sin ánimo de lucro tienen unos beneficios de 19,6 millones de euros como es el caso del Athletic?”, se ha preguntado. “Es cierto que no reparten beneficios entre sus socios, pero no es suficiente para que tengan un trato de favor”, ha manifestado.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La socialista Alexia Castelo tras criticar la postura de “algunos” por “subirse al carro” cuando hasta la fecha no habían planteado ninguna modificación normativa, ha explicado que ahora la Hacienda foral deberá determinar si el Athletic debe “devolver” alguna cantidad.

Para el PNV, la modificación de la normativa tiene por objetivo el “garantizar la seguridad jurídica” y eliminar “un trato de favor” entre entidades deportivas, si bien la apoderada jeltzale Ainara Aretxabaleta ha matizado que la Diputación ha estado "aplicando hasta ahora el marco legal".

#### CUMPLIMIENTO DE LOS MANDATOS DE JUNTAS GENERALES

En la misma sesión, la Diputación ha presentado el informe relativo al control de cumplimiento por parte de la Institución foral de las proposiciones no de norma aprobadas por la Juntas Generales entre el 1 de septiembre de 2015 y el 1 de septiembre de 2016, de cara a cumplir el artículo 179 del Reglamento de la Cámara vizcaína.

La diputada foral Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha explicado que el informe, el primero que se presenta en una sesión plenaria, recoge el grado de cumplimiento de las “79” proposiciones no de norma aprobadas en el parlamento vizcaíno en el último año, de las cuales “51” competen directamente a la Diputación, y “28” a otras instituciones. De estas últimas, Bengoetxea ha subrayado que en “cuatro” la Diputación ha asumido el “espíritu” de la iniciativa.

Bengoetxea ha resaltado también que la Diputación “ha puesto los medios para cumplir el 100%” de las propuestas, aunque “28” del medio centenar que afectan al ejecutivo vizcaíno se encuentran “en desarrollo”, puesto que se ha tenido un plazo “exiguo” para cumplirlas en su totalidad. La Institución foral ha cumplido ya el mandato parlamentario de “23” proposiciones no de norma.

La diputada ha hecho un repaso por departamento de esas 51 propuestas aprobadas por la Cámara. Los departamentos de Administración Públicas, Hacienda y Finanzas, y Acción Social, se llevaron dos cada uno. Cinco corresponden al área de Empleo, seis a Sostenibilidad y Medio Natural, y otras siete al área de Desarrollo Económico y Territorial. Los departamentos que más propuestas han tenido que atender son Transportes, y Euskera y Cultura, con doce y quince proposiciones no de norma, respectivamente.

#### APROBADA LA CUENTA GENERAL DE 2014 Y LA CONVOCATORIA DE LA MESA DE DIÁLOGO

El pleno ha aprobado la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2014. El resumen de las magnitudes económicas-financieras realizadas por el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha recibido el plácet del hemiciclo gracias a los votos a favor de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y grupo Mixto. PP y Podemos Bizkaia han votado en contra y EH Bildu se ha abstenido.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Asimismo, el parlamento de Bizkaia ha aprobado por unanimidad pedir la convocatoria de la Mesa de Diálogo Civil de Bizkaia, tras acuerdo previo de los grupos junteros de PNV, PSE-EE, EH Bildu, Podemos Bizkaia y grupo Mixto.

En el texto se recoge que las Juntas Generales de Bizkaia instan al departamento foral de Acción Social a convocar la primera reunión de la Mesa de Diálogo Civil “a la mayor brevedad posible” una mesa que “debe regirse y trabajar los asuntos que ella misma, según sus prioridades y dentro de su ámbito de actuación, considere oportuno desarrollar, teniendo en cuenta la experiencia de anteriores legislaturas”.

Las Juntas Generales se reafirman en la validez de dicha iniciativa e instan a dicho órgano “al desarrollo de iniciativas que orienten, impulsen y evalúen las políticas sociales y otras iniciativas del sector público foral y del tercer sector social en el ámbito de la intervención social”.

#### MOCIONES RECHAZADAS SOBRE FINANCIACIÓN MUNICIPAL Y ACCESO DEL TAV EN BILBAO

En la última parte de la sesión, los grupos junteros han abordado el debate de otras dos mociones, ambas desestimadas. Podemos Bizkaia recogía en una de ellas la demanda de algunos municipios vizcaínos ((Etxebarri, Valle de Karrantza, Zaratamo, Orozko, Gorniz, Bermeo y Zaldibar) para que se estableciera una financiación municipal “más justa”. Han recibido el apoyo de PP y Mixto, la abstención de EH Bildu y el rechazo de PNV y PSE-EE.

Por su parte, el PP pretendía que la Diputación se incorporase “a los ámbitos de trabajo” junto al Ayuntamiento de Bilbao, Gobierno Vasco y Ministerio de Fomento, para colaborar “con ideas y aportación económica” en la entrada del TAV en Bilbao. Las dos formaciones que apoyan al Gobierno –PNV y PSE-EE- han rechazado la iniciativa popular al considerar que la financiación corresponde al Gobierno central.este campo.